



Arartekoaren 2021R-742-20 Ebazpena, 2021eko ekainaren 11koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari gomendatu zaio Gasteizko Santiago Apostoluaren ospitalean eta Ertzaintzaren zaintzapean zegoenean zendu zen preso baten heriotza ikertu dezala eta argitu dezala zeintzuk izan ziren zaintza horretan zehar erabili ziren bitarteko hertsatzaileak.

Aurrekariak

1. Preso dauden pertsonen esparruan lan egiten duen elkarte batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen honako hau argitzeko: 2020ko apirilean Gasteizko Santiago Apostoluaren ospitalean eta Ertzaintzaren zaintzapean zegoenean zendu zen presoaren heriotzarekin zerikusia duten inguruabarrak.

Dirudienez, gizonak ez zuen familiarik eta hainbat patologia fisiko eta mental zituen. Zentro espezializatu batera joateko zain zegoen gaixotasun larri eta sendaezin baten ondorioz Arabako espetxetik irteteko. Espetxetik ospitalera eraman zuten programatutako ebakuntza kirurgiko bat egiteko.

Kexan azaldu den bertsioaren arabera (elkarte kexagileak ezin izan du egiaztatu) gizonak liskar bat izan zuen osasun-langileekin, eta, orduan, langile horiek presoaren zaintzen zeuden Ertzaintzako agenteen esku-hartzea eskatu zuten. Agenteeek gogor jardun zuten. Horrez gain, elkarteak ez daki heriotza eragin zion bihotz-biriken gelditzea poliziak esku hartu zuen unean edo beranduago gertatu zen.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ostean, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailera jo zuen gaiari buruzko informazioa eman ziezaion.

Sailak garai hartan sailburua zenak Eusko Legebiltzarrean eman zuen informazioa helarazi zion erakunde honi, talde parlamentario baten galderari erantzuteko.

Emandako informazioa, zehazki, honako hau izan zen:

“(...) jaunak, (...) taldeko legebiltzarkideak, Segurtasuneko sailburuari galdera egin zion Gasteizko Santiago ospitalean gertatutako Zaballako preso baten heriotzari buruz. Horri dagokionez, erantzuna hau da:





- 1.- Zein zirkunstantzietan burutu zuen Ertzaintzak interbentzioa?**
- 2.- Zein tresna, defentsa, arma edota teknika erabili zituzten ertzainek paziente hori menderatzeko?**
- 3.- Pazienteak zauri fisikoak pairatu zituen? Hala izatekotan, zeintzuk?**

2020/04/06an, Arabako espetxe horretako 67 urteko (...) preso Vitoria-Gasteizko (Araba) Santiago Apostol ospitaleko (...) gelan ingresatuta zegoen, han tratamendu kirurgiko bat jaso behar zuelako. Ertzaintzako bi agente hura zaintzen ari ziren. Aipatu behar da paziente hori, Covid-19aren ondorioz, berrogeialdian zegoela.

Instruitutako eginbideetan jasota dagoenaren arabera, 07:30ean ospitaleko erizain bat presoarengana hurbildu zen proba analitiko bat egiteko asmoz eta, une horretan bertan, ezustean, presoak gelan zeuden hamabost zentimetroko pintza kirurgiko batzuk hartu zituen, eta erizaina eskuineko eskuarekin lepotik indarrez hartu ondoren, hormaren kontra baztertu zuen eta behin baino gehiagotan saiatu zen erizainari artaziak aurpegian iltzatzen.

Une horretan, presoak zaintzen zebiltzan ertzainetako batek esku hartu zuen eta, hitz eginez, erasotzailea lasaitzen saiatu zen, erizaina aske utz zezan. Baina, horrela lortu ez zuenez, agenteak ezkerreko besoarekin heldu zion erizainari eta, berarenganatz tira eginez, presoarengandik askatzea lortu zuen. Orduan, presoak ertzainari oldartu zitzaion eta pintza kirurgikoekin erasotu zion, baina ez zuen lortu.

Une horretan, borroka bat egon zen presoaren eta ertzainaren artean; izan ere, presoak agenteari pintzekin erasotzen jarraitzen zuen, etengabe ostikadak eta ukabilkadak botatzen zizkion bitartean; eta agenteak defentsa erabili behar izan zuen, presoari beso eta hanketan kolpeak emanaz.

Borroka ondorioz, biak hormaren kontra eta logelako erradiadorearen eremuan erori ziren, agenteak erasotzaileari arma kentzea lortu zuen eta ohean bertan inmobilizatu zuen, erasotzeari utzi zion arte.

Horregatik, Vitoria-Gasteizko Ertzain-etxeak XXXXX erreferentziako atestatua instruitu zuen eta Vitoria-Gasteizko Guardiako Instrukzio Epaitegira bidali zuen.





Tartean egon zen erizainak ere salaketa jarri zuen eraso-ahaleginagatik eta osasun-funtzionario baten aurkako atentatuagatik (Zigor Kodearen 550. art.) eta salaketa horretan adierazi zuen bere osotasun fisikoa arrisku larrian ikusi zuela, presoak erabilitako indarkeriaren ondorioz. Halaber, berariaz zoriondu zuen agente jardulea bere jarduketagatik (XXXXX erreferentzia).

Agente horrek lesio arinak jasan zituen eta Santiago ospitaleko Larrialdi zerbitzuan sendatu zizkioten.

Agente jarduleak bezala, borrokaren ondorioz, presoak ere azaleko zauri arinak pairatu zituen.

4.- Interbentzioak bestelako ondorioak izan zituen haren osasunean? Egiatzatu da heriotza interbentzio horren ondorio zuzena izan zen ala ez?

Presoa bi egun geroago hil zen, 2020/04/08an, Ertzaintzak daukan informazioaren arabera. Segurtasun Sailean ez dago jasota presoaren heriotzari buruzko inolako txosten medikorik, ez ospitaleak egindako txostenik, ezta espetxeak egindako txostenik ere.

5.- Segurtasun Sailaren iritziz, erabilitako indarra proportzionala izan zen?

6.- Segurtasun Sailak espedientea ireki du interbentzioa egokia izan zen ala ez aztertzeko? Hala bada, zein izan da emaitza? Hala ez bada, zergatik ez du ireki?

Ez da diziplinazko espedientea ireki, ez delako agente jarduleen praxi txarraren zantzurik ikusi.

7.- 7/2019 Legeak, Poliziari buruzko Legea aldatzen duenak, EAEko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea sortu eta organo horren eginkizunak zehazten ditu. Besteak beste, 10.2 artikulua honakoa dio, hitzez hitz, batzorde horren eginkizunei buruz: "Poliziaren esku-hartze edo operatibo baten testuinguruan edo zaintza polizial baten barruan norbait hiltzen bada edo larriki lesionatuta suertatzen bada, nahitaez, ofizioz ikertuko ditu gorabehera horiek. Ertzaintzak edo Udaltzaingoak berehala jakinarazi beharko diote hori gertatu dela batzordeari". Bada, Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea bildu da zioan aipatutako heriotza ikertzeko? Bildu ez bada, zergatik ez? Bildu egingo da? Eta dagoeneko bildu baldin bada, noizko espero du emaitza? Horren inguruko informazioa emango die oposizioko taldeei?





Kontrol eta Gardentasun Batzordea ez dago oraindik operatibo, bere kideak izendatzeko zain baitago.

Segurtasun Sailak ez du jaso presoaren heriotza jarduketa polizialarekin lotzen duen informazio medikorik, ezta ospitalearen informaziorik ere.

Ez dago jasota agintaritza judizial eskumendunak horri buruzko ikerketarik ireki duenik.

8.- Beste batzuetan horrelako gertakariak izan direnean Segurtasuneko sailburua harremanetan jarri da oposizioko taldeekin informazioa emateko, eta taldeok gardentasun-ariketa hori ontzat eman genuen batzordean agerraldi batean. Oraingoan, ordea, sailburua ez da taldeekin harremanetan jarri. Zergatik ez?

Segurtasuneko sailburuak ez du Vitoria-Gasteizko ospitale horretan ingresatuta zegoen presoaren heriotzari buruzko jakinarazpenik jaso."

3. Aipaturiko informazioan, Sailak Ertzaintzaren esku-hartzea zer inguruabarretan gauzatu zen azaltzen zuen, baina ez zuen eskaintzen erabilitako indarraren inguruko xehetasunik. Ez zuen jakinarazten ere gertatutakoa ikertu ote zuen, ezta poliziaren jarduerak presoaren heriotzan eraginik izan ote zuen ala ez baztertu zuten ere.

Erakunde honen arabera, hala ere, bi elementu horiek ezagutzea funtsezkoa zen kexari erantzun egokia eman ahal izateko eta egun hartan erabili zen indarra lege-eskakizunetara eta Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (II.2.1 eta IV atalak) jasotzen diren gidalorroetara egokitzen den zehazteko.

Hori dela eta, berriro jo zuen Segurtasun Sailera eta honako informazio hau bidaltzeko eskatu zion:

-poliziaren esku-hartzeak presoaren heriotzan eraginik izan ote zuen argitzeko egindako barneikerketaren edukia, eta ikerketan ateratako ondorioak.





-indarraren erabilera eta barnekontrola jasota dituzten dokumentuak, Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazitako moduan (II.2.1 eta IV atalak).

-gertaera horiei lotuta egin den atestatua (XXXXX).

-polizia-jarduna dokumentatu den gainerako erregistroak.

4. Segurtasun Sailak Arartekoaren bigarren lankidetzeta-eskaera honi erantzun dio, honela:

“a) EL CONTENIDO DE LA INVESTIGACIÓN INTERNA

La Ertzaintza no ha incoado procedimiento disciplinario alguno por este hecho y tampoco ha abierto una investigación interna, puesto que no hay constancia, ni indicio alguno, de la existencia de una conducta policial que pueda ser merecedora de reproche penal o disciplinarlo, haciendo constar:

1. La intervención del agente de la Ertzaintza y el uso de su defensa reglamentaria fue proporcional al incidente acaecido y se ajustó plenamente a derecho.

A este respecto, indicar que según señala el artículo 34.2 de la Ley de Policía del País Vasco, los agentes solo podrán usar las armas cuando exista un riesgo racionalmente grave para su vida o integridad física o la de terceras personas, y en este caso, sí existió ese riesgo grave e inminente contra la vida e integridad física tanto de la enfermera implicada, como del agente de la Ertzaintza actuante.

2. No existe ningún elemento objetivo que induzca a pensar que el fallecimiento del preso tuviera que ver con el incidente previo.

D. (...) que, como se indica en su expediente de queja, sufría varias patologías previas graves, falleció dos días después del altercado por causas naturales. Sufrió un fallo cardíaco ajeno totalmente al previo incidente provocado por él mismo y que originó la intervención de los agentes de la Ertzaintza.

b) DOCUMENTOS RELACIONADOS CON EL USO DE LA FUERZA





“Tal y como establece la Recomendación General del Ararteko 7/2011, de 28 de octubre (apartados II.2.1 y IV), en este hecho el uso de la fuerza ha sido concebido como último recurso, ha respetado estrictamente los principios legales de adecuación, necesidad y proporcionalidad, y se ha basado en un juicio razonable, controlado y ratificado en cada caso por los superiores jerárquicos.

Todo lo actuado ha quedado documentado en las diligencias comprendidas dentro del atestado instruido por la Ertzain-etxea de Vitoria-Gasteiz, de referencia XXXXX, y que ha sido remitido al Juzgado de Instrucción de Guardia de Vitoria-Gasteiz”.

Segurtasun Sailak ez dio eskaini erakunde honi adierazitako alderdien inguruan adierazitakoa baino informazio gehiago.

Era berean, ez dio bidali gertakarien ondorioz bideraturiko atestatuaren kopiarik, ez eta poliziaren jarduketa jasota geratu zen erregistroen kopiarik ere (eskatu zuen arren). Hori dela eta, Arartekoa Ertzaintzaren bulegoetara joateko gonbita egitera mugatu da, bertan, beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egin ditzan, baina ez du inolako arrazoirik eman lankidetzeta-eskaera gauzatu zen baldintzetan betetzea edo jarduteko modu hori justifikatzea eragozten dionik.

Gogoetak

1. Ordenamendu juridikoak Arartekoari esleitzen dizkion prebentziozko funtzioen erabileran, erakunde honek hainbat ikuskaritza-mekanismo proposatu ditu poliziaren jarduketak oinarritzko eskubideen errespetuarekin bat datozen parametroekin egokitu daitezten.

Bereziki azpimarratu den mekanismo horietako bat da poliziaren arduradunek ofizioz ikerketarako barneko prozedura bat abiarazteko premia, betiere, poliziaren jarduketa jakin baten inguruko kexa bat jasoz gero, jarduketa hori behar bezalako bideetatik jazo ote zen egiaztatzeke eta, hala badagokio, neurri egokiak, diziplina-neurriak edo beste izaera bateko neurriak hartzeko.

Arartekoak gomendatu du, era berean, ofizioz ikertu daitezela indarra erabiltzearen ondorioz lesioak edo heriotza eragin duten polizia-jarduketa guztiak.





Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean, (“Poliziaren jarduera eta praktiketako berme-sistemari buruzkoa” —II.1.1. apartatua—) eta Arartekoaren 2012ko azaroaren 30eko Ebazpenean (“Horren bidez, Ertzaintzak Bilbon eta Vitoria-Gasteizen izan zituen bi esku-hartzeen ondorioz hasitako ofiziozko espedientean egin duen jarduera bukatzen da. Esku-hartze haietan, bi gazte heriotza eragiteraino eta larriki zauritu zituzten, hurrenez hurren”) erakunde honen irizpidea eta giza-eskubideak bermatzen dituzten nazioarteko eta Europako erakundeek horren harira harturiko erabakiak jasotzen dira.

Bi dokumentuak Arartekoaren webgunean kontsultatu daitezke¹.

Arartekoak uste du ofizioz ikerketa bat egiteko premia poliziaren jarduketa batean poliziaren zaintzapean dagoen pertsona bat hiltzen den kasu guztietara hedatzen dela.

Nazio Batuen erakundeak dagoeneko azpimarratu zuen “Legez kontrakoak izan daitezkeen heriotzen ikerketari buruzko Minnesotako protokoloan (2016)” garrantzitsua dela aipaturikoa bezalako kasuetan ikerketak egitea. Honela kalifikatzen dira Protokoloan poliziaren zaintzapean edo askatasunik gabeko beste egoera batzuetan gertatutako heriotzak.

Protokoloan azpimarratzen denaren arabera, legez kanpokoak izan daitezkeen heriotzak ikertzeko betebeharra bizitzarako eskubidearen funtsezko alderdi bat da, Estatuak babestu beharrekoa, eta betebeharrak hori, besteak beste, izaera horretako heriotza baten berri izaten den unean aktibatzen da, heriotza hori itxuraz arrazoi naturalengatik gertatzen bada ere.

Ikerketaren eta bizitzarako eskubidearen arteko lotura azpimarratu du, era berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak. Auzitegiak adierazi du Giza eskubideak eta funtsezko askatasunak babesteko Europako Hitzarmenaren 2. artikuluan bere jurisdikzioaren pean dauden pertsonen bizitzarako eskubidea babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko betebeharra ezartzen zaiola Estatuari. Hori dela eta, pertsona bat egoera horretan hiltzen denean ikerketa ofizial eraginkor bat egin behar da, nahiz eta ez den zehaztu heriotza Estatuko agenteek eragin dutenik. Eta egiaztatu du eskubide hori urratu dela, Estatuak ez baitu ikertu edo ez baitu nahikoa ikertu. GEEAE (4. atala). Scavuzzo-Hager

¹ - [7/2011 Gomendio Orokorra](#)

- [Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 30ekoa](#)



kasua eta beste batzuk Suitzaren kontra, 2006ko otsailaren 7a, Auzitegiaren jurisprudentziaren erakusgarri bat da.

Ikerketa bat, beraz, une honetan ez da aktibatzen bakarrik poliziaren balizko jarduketa desegoki bat gertatu izanaren zantzuak edo frogak antzematen badira, eta ikertzeak ez du esan nahi zalantzan jartzen denik ikertzen ari den poliziaren jarduketa bera.

Gogorarazi beharra dago, alde batetik, ikerketa ez dela mugatzen diziplina-esparrura, irismen orokorragoa du.

Erakunde honek behin eta berriz adierazi duen bezala, polizia-administrazioako organoek edo instantziek edo epailetzatik kanpoko beste instantzia batzuek burutzen duten ikerketaren eginkizuna da, besteak beste, berehala argitzea poliziaren jarduketaren inguruabarrak eta egiaztatzea behar bezala bete diren aplikagarriak ziren arauak, protokoloak, jarraibideak edo instrukzioak, eta gerta daitezkeen disfuntzioak zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea eta horiek berriro ager daitezela saihestea.

Poliziaren zaintzapean dauden bitartean gertaturiko heriotza kasuetan, bizitzarako eskubidearen prozedura-berme gisa, bere eginkizuna da, era berean, argitzea zaintza gauzatzeko moduak edo egoera horretan erabili ahal izan zen indarrak eraginik izan zuen heriotzan.

2. Europako Kontseiluaren Poliziaren Etikari buruzko Europako Kodeak (Euskadiko Poliziari buruzko Legearen Testu Bateginaren –uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitakoa– 22. artikulua bidez kode horren menpe jartzen da beren-beregi Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako agintaritzen eta langileen jarduketa) ikerketa erraztu eta sustatzeko gomendatzen die estatu kideei.

Illo horretatik, testu bateginak berriazko agindua ematen die administrazio publikoei kexak eta ikerketak tratatzeko prozedura eraginkor eta inpartzialak ezar ditzaten, erantzukizuna sustatuko dutenak eta herritarren eta poliziaren arteko komunikazioan eta ulermenean oinarrituko direnak, nahiz eta ustezko praktika txarren kasu garrantzitsuetara mugatuta egon (13.2 art.).

Testu bateginean, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea arautzen da, erakunde polizialarekiko eta Eusko





Jaurlaritzan segurtasun-gaietan eskumena duen sailarekiko autonomia funtzionala duen kide anitzeko organo gisa, eta besteak beste, poliziaren zaintzapean dagoen pertsona bat hiltzen den edo larriki zauritzen den kasuetan gertaturiko gorabeherak ofizioz aztertzeke eginkizuna esleitzen dio — 17.2.b) art. —.

Aipatu den testu bategineko aurreikuspenak dagoeneko jasota zeuden Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean (6. eta 10. artikulua, ekainaren 27ko 7/2019 Legearen bidez emandako idazketa berrian) aztertzen diren gertakariak gertatu zirenean.

Ertzaintzak bere webgunean eskaintzen duen informazioaren arabera, Batzordea urtarrilaren 26ean eratu zen eta bere jarduketa egun horretatik aurrera gerta zitezkeen gorabeherekin lotu zen; beraz, aldi horretatik kanpo geratzen da orain aztertzen ari den heriotzaren ikerketa.

Edonola ere, egokitzat jo da Batzordea aipatzea, izan ere, adierazitako eginkizunekin sortu izanak erakusten baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legeak garrantzia handia ematen diola poliziaren zaintzapean gertaturiko heriotzen ikerketari.

3. Aurrekarietan adierazi den bezala, Segurtasun Sailak erakunde honi eman dion informazioaren arabera, sail horrek ez ditu gertakariak ikertu, eta arrazoi gisa adierazi du ez duela izan diziplina- edo zigor-gaitzespena merezi dezakeen polizia-jokabidearen berririk edo zantzurik, eta ez dagoela inolako elementu objektiborik heriotza aurreko gertakariarekin lotuta dagoela pentsarazten duenik.

Arartekoaren ustez, arestian aipaturiko arrazoiak direla eta, Segurtasun Sailak gertakariak ez ikertzeke azaltzen dituen arrazoiek ezin dute justifikatu ikerketarik egin ez izana.

Derrigorrezkoa da azpimarratzea ikerketa-mekanismoa pertsona bat poliziaren zaintzapean hiltzen den guztietan aktibatu behar dela, jarduketa desegoki baten zantzuak izan edo ez gorabehera.

Era berean, errepikatu beharra dago ikerketa zaintza-jardueraren osotasunera hedatu behar dela, zaintza gauzatzeko moduak geroko gertakarietan zerikusirik izan zuen ala ez argitzeko.





Emandako informazioaren arabera, aztertu den kasuan, presoaren Ertzaintzaren zaintzapean zegoen gorabehera gertatu zenean eta horren ondorioz zaintzen zegoen agenteetako batek bere aurkako indarkeria erabili zuenean. Informazio beretik ondorioztatzen denaren arabera, poliziaaren zaintzapean jarraitzen zuen zende zenean.

Erakunde honen ustez, hori dela eta, ikerketa aktibatzen beharrezkoak ziren egitatezko aurrekontuan eman ziren.

Azpimarratu beharra dago, era berean, ikerketa honelako kasuetan ez dela abiarazten diziplina- edo zigor-gaitzespena merezi dezakeen irregulartasunik antzeman delako, baizik eta polizia-kidegoek beren zaintzapean dauden pertsonen bizitzarako eskubidea babesteko betebeharra dutelako. Betebehar horren barruan sartzen da zaintza hori bizitzarako eskubidea ahalik eta ondoen babestuz antolatu eta gauzatzea.

Ikerketa da, hain zuzen ere, gertakariak argitzea, gutxieneko berme batzuekin baloratzea eta heriotzak poliziaaren esku-hartzearekin edo zaintza gauzatzeko moduarekin zerikusia izan zezakeela baztertzea ahalbidetu duen mekanismoa. Era berean, poliziaaren jarduketara errespetatu behar zituen arau eta parametroetara egokitu zela egiaztatzea ahalbidetzen duen mekanismoa da.

Hori dela eta, Arartekoak uste du Segurtasun Sailak presoaren heriotza ikertu behar duela, erakunde honen jarraibideei eta ikerketari buruzko nazioarteko eta Europako errekerimenduei jarraikiz.

4. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean, Arartekoak adierazi du indarraren erabilera beti azkenengo baliabidea izan behar dela eta zorrotz errespetatu behar direla Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 5.2.c) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Testu Bateginaren 29. artikuluan ezarritako egokitasun-, premia- eta proportzionaltasun-printzipio legalak eta kasu bakoitzean buru hierarkikoek arrazoitu, kontrolatu eta berretsitako iritzian oinarritu behar direla. Era berean, agenteek argi utzi behar dute zergatik erabili duten indarra, zer arrazoik justifikatzen duen erabaki hori eta parte hartzea zehazki nola garatu den ere adierazi behar dute, erabilitako indarraren deskribapen zehatzarekin batera. Halaber, adierazi izan da, jarduera behar bezala dokumentatuta geratu behar dela, ondoren neurriaren kontrola





egin ahal izateko. Era berean adierazi du indarra polizia bulegoetatik kanpo erabiltzen denean, hura izanik egoerarik ohikoena, poliziek dagokien kontrol-zentroari beren jardueraren zioak jakinarazi behar dizkiotela (II.2.1 atala).

Gomendioan ikuspegi materialetik ere aztertu da indarraren erabilera eta azpimarratu da kasu bakoitzean bat egiten duten inguruabar zehatz guztiak zehaztasunez ezagutzea funtsezkoa dela indarkeria barne hartu behar izan duen poliziaren jarduketa bakoitza baloratu ahal izateko eta neurriaren legezkotasunari buruzko epaiketa egiteko (IV. atala) beharrezkoak diren elementu guztiak behar bezala dokumentatu behar direla.

Nolanahi ere, Segurtasun Sailak erabilitako indarraren inguruko behar besteko zehaztasunak eman dizkio erakunde honi indar hori baloratu ahal izateko. Aurrekarietan adierazi den bezala, emandako azalpenetan zenbait erreferentzia orokor egiten dira: une hartan Ertzaintzaren zaintzapean zegoen gizonaren hanketan eta besoetan erabilitako defentsa, presoaren eta hura zaintzen zuten agenteetako baten arteko borroka eta euste-neurriak. Erreferentzia horiek helarazi zen lehenengo informazioan jasotzen dira, baina Arartekoaren ustez informazio hori ez da nahikoa puntu horretan poliziaren jarduketa baloratu ahal izateko.

Bigarren lankidetzaz-erantzunez emandako informazioan ez da zehaztasun gehiago ematen erabilitako indarra baloratu ahal izateko, izan ere, balio-iritzi bat baino ez baitu helarazten, zeinaren bidez adierazten baita erabilera hori proportzionala izan zela eta zuzenbidearen arabera gauzatu zela, baina ez da aurkezten iritzi horrek oinarri dituen elementuak.

Azken informazio horrek, gainera, benetan erabilitako bitarteko hertsatzaileen inguruko zalantzak eragiten ditu.

Aurrekarietan azaldu den bezala, era berean, Segurtasun Sailak honako hau adierazi du informazio horretan: *“según señala el artículo 34.2 de la Ley de Policía del País Vasco, los agentes solo podrán usar las armas cuando exista un riesgo racionalmente grave para su vida o integridad física o la de terceras personas, y en este caso, sí existió ese riesgo grave e inminente contra la vida e integridad física tanto de la enfermera implicada, como del agente de la Ertzaintza actuante”.*





Informazioko edukitik ondorioztatu daitekeenaren arabera, zaintzen ari ziren agenteetako batek arauzko arma erabili zuela, baina hori ez dator bat hasiera batean emandako informazioarekin, orduan ez baitzen aipatzen armarik erabili zenik.

Arartekoak uste du zalantza horiek behar bezala argitu behar direla. Nahitaez gogorazi behar da ikerketan eskakizunak zorrotzagoak direla arma hilgarriak edo hiltzeko gaitasuna duten armak erabiltzen direnean.

Segurtasun Sailak ere ez du jakinarazi indarraren erabileraren inguruko barne-kontrolik egin duenik urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (II.2.1. atala) adierazitako baldintzetan, eta ez ditu aurkeztu kontrol hori jasotzen duten dokumentuak, erakunde honek eskatu zizkion arren.

Helarazitako informazioan dauden hutsuneen ondorioz, Arartekoak ulertu behar du Segurtasun Sailak ez duela bete kasu honetan gomendioa aipaturiko puntuan, eta ez dizkiola aurkeztu erakunde honi erabilitako indarra legezko eskakizunetara eta gomendioan ezarritako jarraibideetara egokitu zen ala ez baloratu ahal izateko beharrezkoak diren elementuak.

5. Euskal herri-administrazioen legezko betebeharra da Arartekoak eskatutako datu, agiri, txosten edo argibide oro lehentasunez eta premiaz ematea, Arartekoak bere funtzioak bete ahal izateko. Eskatutako informazioa ez ematea gure lanari oztopoak jartzea dela dio legeak. Halaber, legeak oztopotzat jotzen du eskatutako informaziorako sarbidea zailtzen duen jarduera oro (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24 artikulua).

Arartekoaren ustez, Segurtasun Sailak ez du behar bezala bete kasu honetan aipaturiko legezko eskakizuna, ez baitio bidali erakunde honi gertakarien ondorioz abiarazitako atestatua eta poliziaren jarduketa jaso zuten gainerako erregistroak, ez eta erabilitako indarraren eta horren barne-kontrolaren berri ematen duten dokumentuen berri ere, erakunde honek eskatu zizkion arren.

Eskaera horri erantzunez, Arartekoari bere bulegoetara joateko gonbita egitera mugatu da, beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egin ditzan, baina ez du eman azalpenik eskaera gauzatu zen baldintzen arabera betetzea eragozten dioten arrazoen inguruan; eta beste kasu batzuetan adierazi izan den bezala, hori izan da erakunde honek egin dizkion antzeko eskaeren aurrean Sailak eman izan duen erantzuna.





Sailak ez dio aurkeztu Arartekoari erabilitako indarra bere kabuz baloratu ahal izateko beharrezkoak diren elementuak, ez eta helarazi dion balio-iritzia gauzatzeko kontuan hartu dituenak. Balio-iritzi horren arabera, esan bezala, indarraren erabilera proportzionala izan zen eta zuzenbidearen arabera gauzatu zen, eta poliziaren jarduketak ez zuen eraginik izan heriotzan.

Azalpenik jaso ez duenez, Arartekoak ez du ulertzen Segurtasun Sailak zergatik ez duen bete dagokion lege-betebeharra, erakunde honek eskatutako dokumentuak eta informazioa lehentasunez eta presaz emateko.

Arartekoak berriro adierazi behar du bere eginkizunak burutzeko behar duen informazioa eskuratzeko ordenamendu juridikoak hainbat bide aurreikusten dituen arren, horien artean bat edo bestea hautatzea erakunde honi ez beste inori dagokiola. Horrek ez du eragozten, hala badagokio, beste bide batzuk erabiltzeko aukera aztertzea, administrazioak horretarako arrazoiak azaltzen dituenean. Kasu honetan, hala ere, berriz diogu, ez da horrela gertatu.

Gogora ekarri behar da berriro erakunde honek kasu honetan hautatu zuen bidea behar duen informazioa eskuratzeko erabili ohi duena dela.

Beste batzuetan adierazi izan dugunez, Arartekoaren eskaeretan azaltzen diren kontuei erantzunik ez ematea edo erantzun osatugabeak ematea oztopo handia dira legez esleitutako eginkizunak behar bezala bete ahal izateko, izan ere, arrazoirik gabe, bere iritzi eta balorazio pean jartzen den administrazio-jarduketa ezagutu ahal izateko funtsezko elementuetatik kanpo uzten baitute. Horretaz gain, asko murrizten dituzte erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak —ordenamendu juridikoak herritarrek beren interesak defenda ditzaten ezarritako tresnetako bat da Arartekoa—.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari gomendio hau egiten diogu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





GOMENDIOA

1. Iker dezala Gasteizko Santiago Apostolua ospitalean Ertzaintzaren zaintzapean zegoela zendu zen preso baten heriotza, kontuan hartuta gogoetetan adierazitakoa.
2. Argitu dezala zeintzuk izan ziren Ertzaintzak presoarekin erabili zituen bitarteko hertsatzaileak eta ea zaintzen ari ziren agenteetako batek arauzko arma bat erabili zuen.
3. Har ditzala behar diren neurriak Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorra betetzen dela bermatzeko, azaldutako kontuei eta gogoetetan adierazitako jarduteko gainerako jarraibideei dagokienez.

